

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuari dagokionez, nabarmentzekoa da merkatuan ez dagoela produktu berri honen antzekorik. Ikusi izan dugunez, nobedade handia sortu ahaliko du, zientzia honekin badaudelako produktuak, baina merkatura guztiz zabaltzea lortu ez dutenak. Gainera, gure eskura geratzen denez, ahalik eta pertsona gehienengana iristea nahiko genukeenez, nagusiki erdi-mailako klaseari zuzenduta egongo da, eta ondorioz eskuratzeko erraza izango da.



Idea berdinetik abiatuta arrakastarik izan ez duen ekimen baten adibidea

Gure produktuak forma ezberdinak izango ditu eta pertsonalizatzeko aukera izango dute bezeroek; hau da, nahi dituzten zaporeak erosteko ahalmena izango dute.

Horretarako, bezeroek bi gailu eskuratu ahaliko dituzte. Alde batetik, buruaren bekaldearekin kontaktuan egongo den eta sentsoare moduan jokatu duen osagaia, ezinbestekoa izango dena Starring esperientzia izateko, beharrezkoa baita bulkada neurologikoak prozesatu eta eraldatzeko. Forma eta tamaina desberdineko produktuak eskaintzeko intentzioa daukagu, bezeroek diskretuagoa den gailua edo ikusgarriagoa den bat aukera dezaten.

Bigarren gailua, aldiz, oinarria deituriko "tablet" modukoa izango da, zapore-aukeraketa egin eta buruan kontaktuan egongo den gailuak jasotako informazioa prozesatzeaz arduratuko dena. Hala ere, hau ez da ezinbestekoa izango, lehen aipatutako produktua edozein gailu teknologikorekin (mobilak, tabletak...) konektatu ahaliko delako Bluetooth bidez.

Ondorioz, gure enpresa eta produktu hau garatzeko beharrezkoa izango den teknologia berritzaile honi esker, dastamen-esperientzia bat baina gehiago eskaintzen ariko gara gure bezeroei, ahalmen guztiz berria: norberaren zentzumenak kontrolatzeko ahalmena.